

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko bilketa egiteko aldiari hasiera ematea

2020ko urriaren 10etik abenduaren 10era bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak.

Ordaintzeko lekua eta modua

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideraturik dagoen finantza erakundeetako kontuetan, 2020ko abenduaren 10ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (gaztigu oharrarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek xedatutako errenergua gehituko zaie.

Legutio, 2020ko irailaren 8a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO